Las fauces capitalistas quieren dar otro bocado a la clase trabajadora aprovechando este momento de noqueo pandémico, y lo hacen en otra necesidad básica, la luz. De seguir este camino, a la ciudadanía le espera un futuro apocalípticamente negro, por seguir con alusiones bíblicas, porque ahora es la luz, pero mañana será el agua.

La clase trabajadora solo puede responder con lucha, con reivindicación y resistencia organizadas. Reaccionar frente a la avaricia despótica del sistema es poner la proa hacia la luz, y en esa tarea hay una responsabilidad individual y colectiva. Se llama militancia. Se llama sindicato.

GURUTZE SAGASTI • Gasteiz

A las limpiadoras laborales de Educación-Gobierno vasco: ¡Seguid luchando por un puesto de trabajo público!

42 años hace que me afilié a ELA. Trabajaba en la empresa Areitio (Vitoria). Ahora tengo 65, y aunque me jubilé el año pasado, he seguido hasta ahora en activo sindicalmente, informando a mis compañeras, las limpiadoras laborales de Educación-Gobierno Vasco.

Escribo esta carta porque ya es hora de jubilarme, también, de mi actividad sindical, y me gustaría despedirme con un mensaje de lucha.

Ha llegado el momento de cortar el cordón umbilical con mis compañeras y compañeros. Cuando incluso los fines de semana sigues dándole vueltas a un asunto es un indicio claro de que la dedicación es patológica.

Nos ha tocado vivir años muy intensos. De lucha contra una Administración pública que adoptaba decisiones que afectaban a mis compañeras y compañeros y que cuando como delegada exigías respuestas, en muchas ocasiones ni se te daban.

De hecho, en la hora del adiós, siguen acuciándome preguntas como: ¿convocarán OPE? ¿privatizarán la limpieza? ¿Qué va a ser de las interinas en vacante en Vitoria, la mitad de las cuales tienen más de 60 años?...

Desde la OPE en 2002, en los últimos años he visto cómo, silenciosamente, han ido amortizando los puestos, concediéndoselos a empresas privadas. Por eso, durante este último trimestre he insistido tanto en una idea: ¡compañera, lucha por tu puesto de trabajo público!



Gasteizko kartagileen hordagoa

NAGORE URIARTE

Aritza Sáenz del Castillo Velasco EHUko ikerlariak Gasteizko emakumeek frankismo garaian lan munduan egin zuten ahalduntze ibilbidea aztertutako **Memoria bizia / Naíperas. Una memoria viva** liburuan

Emakume kartagileak. Memoria bizia / Naíperas. Una memoria viva liburua argitaratu du Aritza Sáenz del Castillo Velasco EHUko ikerlariak. Gasteizko Naipes Heraclio Fournier (1870) enpresan lan egin zuten emakume kartagile guztiei –naíperas gisa ezagunak- omenaldia izateko asmoz abiatu zuen ikerketa egileak. Emakumezkoen etxetik kanpoko lana mehatxutzat hartzen zen garai hartan. Bada, inposatutako rola gainditu eta iruditeria berriak sortzeko gai izan ziren kartagileak. Haien ibilbidea kontatzen du liburua, etxeko andre nortasunetik langile klase kontzientzia garatzeraino egindako bidea aztertuz.

Liburuaren lehen hitzek Metz, P.K. eta Tobin, J.L.-ren aipua jasotzen dute. Hala diote: *Los hilos han estado escondidos durante miles de años. Los caminos han sido desgastados por los pies de aquellas que las anduvieron antes. Las historias fueron silenciadas. Las vidas, olvidadas. Ahora el silencio se rompe; un coro se eleva. Las mujeres hablan.*

Emakumeei ahotsa ematea. Hori izan da, hain zuzen ere, egilearen helburua: frankismo garaian emakumezkoek lan munduan izan zuten papera eta eboluzioa aztertzea eta Heraclio Fournierreko kartagileen historia eta memoria berreskuratzea. Horretarako, Gasteizko hainbat lantegi izan

ditu aztergai, besteak beste, Areitio, Explosivos Alaveses, Chocolates Orbea eta Heraclio Fournier. Berehala konturatu zen Velasco Heracliok berebiziko garrantzia zeukala industrializazioaren hastapenetatik emakume langileen ibilbidea nolakoa izan zen ezagutzeko. Hiriko emakume langileen historia berreskuratzeko aukera paregabea ikusi zuen 150 urte bete berri dituen lantegi horretan.

Hiriko fabrika zaharrenetakoak 1870ean hasi zuen bere ibilbidea eta bere ezaugarri nagusienetako bat da hastapenetatik emakumeak nagusi izan zirela. Horrek identitate pertsonal eta kolektiboa eraikitzea ahalbidetu zien, garaiko imajinarioak apurtu eta langile klase identitatea eratzeraino. Heraclio Fournierren lehen urteetan ez zen begi onez ikusten emakumeek etxetik kanpo lan egitea, are gutxiago industrian. Aritza Sáenz del Castillo Velascok liburuan jaso duen bezala, emakumeen lan produktiboa mehatxu soziala zen, naturaren kontrako erasoa. Fournierreko emakume kartagileek, ordea, arrakalak sortu eta lan arloan parte hartzeko modua aurkitu zuten. Euren ahotsak isilduak izan ziren askotan, garai horretan ez zelako onargarria emakumeei inposatutako lan erreproduktiboen esparrua gainditzea, are gutxiago industrian lan egiteko. Euren ahotsa eta memoria berreskuratzeko saiakera da liburua.



Diskriminaziotik ahalduztzera

Feminismoak esan duen bezala, historian zehar emakumeek egin dituzten doako zaintza lanetan oinarritu da ekonomia, hein handi batean. Araututako lan eremura jauzi egin dutenean ere, ez da berezko ekiparaziorik lortu, ez etxean, ezta lantegian ere. Horren isla izan zen Heraclio Fournier fabrika. Lanaren banaketa sexualaz mintzo da egilea.

Generoaren araberako segregazio horizontal eta bertikalak enpresako lanpostu guztiak zeharkatzen zituen. Emakumeak `oficios complementarios femeninos` deiturikoetara bideratzen zituzten, besteak beste, publikazio ezberdinetarako kartak manipulatu, landu, inprimatu eta koadernatzea; gizonak, berriz, inprimatze lanetan jarduten zuten, alegia, makinaria manipulatu. "Patronalarentzat emakumeen lanek ez zeukaten prestigiorik", laburbiltzen du egileak. Horren isla da 50eko eta 60ko hamarkadetan lantegietan egiten zituzten lanen ia % 60 lan ez kualifikatuen kategorian sartu zituztela Sindikatu Bertikaleko -sindikatuak ez zeuden legeztatuta- eta Lan Ministerioko estatistika erregistroetan.

XIX. mende amaieran emakumeen lana prekaritatean oinarritzen zen. Hala zen Heraclio Fournierren ere. Euren lana bigarren mailakotzat jotzen zen, lantegiaren hastapenetatik gehiengo baziren ere. Bi arrazoi nagusi ziren emakumeak kontratatzeko: alde batetik, kartak egiteak trebezia eskatzen zuelako eta dohain hori emakumezkoekin lotzen zutelako; bestetik, soldata txikiagoak ordaintzen zizkietelako, enpresaren etekinen mesedetan. Hala, ibilbide luzeko emakume batek peoi baten pareko soldata soilik jaso zezakeen, hau da, lantegian sartu berri zen gizonetzko batena, kategoriaz aldatzeko eskubiderik gabe.

Emakumeak berriz etxera

Hastapenetatik emakumeak nagusi izan baziren ere, 1939an gerra zibila amaitu eta diktadura frankista nagusitu ondoren, genero diskurtso nabarmena inposatu zen gizarteko esparru guztietan. Lan mundua ez zen salbuespena izan. Gerrak emakumeen eskulanaren beharra ekarri zuen, eta horrek atzeratu zuen erregimen berriak ezarri nahi zuen genero-idearioa. Behin erregimena indarrean, ordea, berriz ere emakumeak espazio publikotik atera eta Espainiako Bigarren Errepublikan ezarritako berdintasunerako legeria oro ezabatzeari ekin zion Francok.

Emakumezkoen etxetik kanpoko lana kezka iturri bihurtu zen. Hala, Lanaren Foruak, frankismoaren lan legeriaren bizkarrezurra zenak, 1938an emakumeak tailerretik eta fabrikatik atera eta etxera itzultzearen aldeko apustua egin zuen, "emazteen eta amen eginbeharra bete zezaten". Erregimen frankistak `hombre ganador de pan` eta `mujer ama de casa` iruditeria errotu zuen.

Aritza Sáenz del Castillo Velasco, liburuaren egilea.



"La segregación sexual del trabajo impulsó a las naiperas a desarrollar su conciencia de clase y reivindicarse como mujer trabajadora, más allá de ama de casa."

Bide horretan, Estatuko enplegu bulego eta erregistroetan izena ematea galarazten zien legea onartu zuten, premia larrian ez bazeuden behintzat. Zenbait sektoretan, ezkontutako emakumeak eszedentzia hartzera behartzen hasi ziren. Legeak jasotzen zuen bezala, `bere emaztea langabe mantentzen zuen familiaburu maskulinoari diru-laguntza emango zitzaion`. Heraclion, ezkontzagatik derrigorrezko eszedentzia ezarri ez zen arren, kartagile asko 25-29 urterekin erretiratzeko ziren, ezkonsaria deitzen zioten konpentsazio ekonomiko txiki bat jasota. Hori dela eta, 30 urtetik gorako emakumeak langileen % 20 baino ez ziren.

Etxeko andrea (ere)

Frankismoak emakumeak etxeratzeko egindako ahaleginak tarteko, Heraclio Fournier nahiko iraultzailea izan zela kontsideratu daiteke; izan ere, emakumezkoak

kontratatzan jarraitu zuen, “bizitzaren kostu handia dela eta, euren familiei baliabideak emateko asmoz”.

Horrela, kartagileek erregimenak bultzatutako iruditeriarekin hautsi zuten. “Soldataren zati handi bat etxera eramaten zuten, kasu batzuetan, familia unitatearen euskarri nagusi bilakatzeraino”. Emakumezkoen lana ezinbestekoa izan zen familien biziraupenerako; bai emakume gazteek lantegietan egiten zutena, baita ezkondu eta enplegua utzita ere, merkatu beltzeko lanetan aritzen ziren emakumezkoena ere. Izan ere, Gasteizko soldatapeko beharginen % 60 baino gehiago peoi lanetan zegoen, soldata baxuekin.

Emakume langile (ere)

60ko hamarkadan langile kontzientzia garatzen hasi ziren. Kartagileek hala egin zuten, etxeko andre soilik izatearen iruditeria hori arrakalatuz. Are gehiago, emakume eta gizonen ogibideak bereizteak zekarren diskriminazioa kontzientzia hartzeko eta ahaldunderako baliatu zuten frankismoaren amaieran.

Behin ezkondu eta ere, euren lanbidean jarraitu nahi zutela aldarrikatzen hasi ziren. “Belaunaldi gazteak dagoeneko frankismoko ideologiatik aldentu ziren. Jabetu ziren gizonezkoekiko ordura arteko dependentzia apurtzeko ezinbestekoa zela euren bizitza proiektua ogibide bati lotuta eraikitzea”. Ordurako argi zeukaten familia eta lantegia uztartu nahi zituztela”.

“Lantegia euren identitate bilakatu zen. Pixkanaka-pixkanaka emakume langilearen figura aldarrikatzen hasi ziren: harreman ereduak irauli nahi zituzten, soldaten diskriminazioa salatzen hasi ziren eta ogibideen berrikusketa eskatu zuten”.

Etxeko lanak eta fabrikako lanak kontziliatu ahal izateko neurriak eskatzen hasi ziren, lantokietan haurtzaindegiak exijituz. “Etxekoandreak ez ezik, langile ere bazirela defendatzen hasi ziren. Neska gazteek ez zuten euren amek eta amonek pairatutakoa jasan nahi. Askatasunaren grina piztu zitzairen. Euren bizitza proiektua eraikitzeko autogestioa oso garrantzitsua bilakatu zen, eta bazekiten hori lortzeko iturri ekonomikoa behar zutela. Emakume askearen ideiarekin bat egiten hasi ziren eta horrek ekarri zuen ogibideari garrantzia handia ematea”.

Klasean klaseak

Aritzak ikerketan ondorioztatu ahal izan duenez, Heraclio Fournierren berebiziko identitate kolektiboa garatu zuten emakumeek, beti ere, nolabaiteko nagusitasun moralaz, langile klasearen baitan klaseak sortuz. “*‘Aristocracia obrera’* kontzeptua erabiltzera ausartu naiz. Fournierren lan egiteak ospe handia zeukan eta gainontzeko lantegietako langileak gutxiesten zituzten. Kontuan hartu behar

“Las naiperas rompieron con el imaginario franquista de `mujer ama de casa´ y `hombre ganador del pan´.”

da Fournierrek eta patronalak Gasteizko politikan zeukaten garrantzia eta inplikazioa. Beste emakume asko, adibidez, egunero joaten ziren Exportaciones San Ignacia lan egitera. Bada, horiei `puchereras´ deitzen zieten (jatekoa prestatzeko tresnak egiten zituzten). Labeetan zeuden, ustez `zikinak´ ziren lanak egiten... Kartagileena, berriz, `lan garbia´ zen, eta horrek nolabaiteko aristokrazia kutsua ematen zien”.

Katolizismo soziala handia zen fabrian eta emakume zintzoen irudia eraiki zuten. Kontrakoa gertatzen zen, ordea, zakuak egiteaz arduratzen ziren fabriketako langileekin: emakume `bihurriak´ zirela zabaldu zen, istiluak sortzen zituztenak...” Heraclioko ugazabak fabrika berriz kristautzeko espazio bilakatu zuen, XIX bukaeran eta XX hasieran Espainian eta Gasteizen nagusi ziren sekularizazio olatuei aurre egiteko asmoz. Hala, lanpostu bakoitzaren goiko aldean santuen litografiak eta irudiak zeuden, langileen jarduteko modua baldintzatzen.

Berdintasunaren hazia

50eko hamarkadaren bigarren erditik aurrera, Gasteizko garapen industrialak hasi zen eta emakumeen eskulanaren eskariak gorakada nabarmena izan zuen.



Servicio de Archivos de Álava (ATHA-ALFARO-EMP).

Paternalismo industrial

En la década de los 70, cuando entre las naiperas comenzaba a emerger la conciencia obrera, Heraclio Fournier puso coto a la identidad colectiva recién construida. Para ello, puso en marcha lo que el autor, Aritza Sáenz del Castillo Velasco, ha denominado 'paternalismo industrial'. "El patrón se comportaba como un padre. Se ocupaba, incluso, de la 'educación' de las naiperas, siempre en beneficio propio, en un claro intento de controlar el tiempo que iba más allá del puesto de trabajo".

Así, se crearon grupos para ir al monte, grupos de teatro, biblioteca de la empresa... En esa misma línea, también fue pionero en las prestaciones sociales. Entre otras cosas, en Vitoria, la de Heraclio Fournier fue la primera empresa que fijó la jornada de ocho horas, creando así una cohesión social e identidad en torno a la fábrica.

"Todo ello demuestra una responsabilidad hacia las trabajadoras, pero no era algo gratuito, claro. El paternalismo industrial fue muy eficaz a la hora de evitar las reivindicaciones y las huelgas". Así las cosas, las convocatorias de huelga de estos tiempos tuvieron poco peso entre las naiperas. La llamada a la movilización de los sindicatos el Primero de Mayo de 1905 no tuvo éxito. Tampoco participaron en la importante huelga convocada a nivel estatal en 1916 para protestar contra el encarecimiento de la vida y por la crisis del trabajo, "por considerar que no tenían nada que reivindicar y que estaban satisfechas con sus salarios".

Sin embargo, la impermeabilidad de 'la honrada familia' sufrió algunas grietas. "Este modelo de familia no siempre fue tan idílico como se pensaba. Las trabajadoras consideradas 'traviesas' sufrieron la represión y fueron despedidas".

Las luchas y reivindicaciones se sucedieron en la Segunda República, y aunque en 1931 se declaró que las naiperas trabajaron con total normalidad en la huelga de 5 días apoyada por los anarquistas y socialistas de Vitoria, algunas fueron acusadas de infringir la norma y de presionar a otros compañeros a la huelga. "Esto puso de manifiesto un cierto acercamiento al asociacionismo obrero y a la clase trabajadora".

Poco después de proclamarse la II República, las expectativas que surgieron entre los anarquistas y entre los socialistas y UGT no se cumplieron, y en diciembre se convocó una huelga general. Tuvo repercusión en varios sectores de Vitoria, no así en Heraclio. Sin embargo, algunas naiperas permanecieron en la puerta de la fábrica haciendo proselitismo a favor de la huelga, lo que derivó en acoso por parte de la empresa. Fueron identificadas, y cuando comenzó el franquismo, algunas fueron detenidas y encarceladas acusadas de delitos de rebelión y pasaron hasta 4 años en prisión.

"Ahí se ve claro el interés de la empresa: las trabajadoras son sus hijas, sí, siempre y cuando sean católicas y de derechas", concluye el autor del libro. 

"El paternalismo industrial imperante en la fábrica de naipes se utilizó como arma para evitar reivindicaciones y huelgas".

Horrek euren rola aldatzen joatea ahalbidetu zuen. Beste lan batzuk egiten hasi ziren Fournierren, lanbide osagarrietatik harago. Horien artean, nabarmentzekoa da Proiektu eta Marrazketa Zerbitzua, non genero rolei dagokienez mentalitate-aldaketa hauteman baitzen.

Horren adibide dugu Emakumearen Nazioarteko Egunean egindako diseinuan gizona eta emakumea modu ekitatiboan irudikatu zirela balantza batean, bi platertxoetan altuera berean jarritik, gizartean izan behar zuten balio berdinen isla.

Garai hartan izan zen beste berrikuntzarik ere: emakumeak langileen ordezkari ziren karguetara iritsi ziren, beti ere diktadura frankistan ordezkariak organoak guztiz demokratikoak izan ez zirela abiapuntutzat hartuta. Hala, 1960an jada baditugu emakumeak Gasteizko lantegi garrantzitsuenetako 'jurados de empresa' deiturikoetan, Areitio kasu.

1965ean emakume bat sartu zen lehen aldiz Hitzarmenaren Batzorde Mistoan: Heraclioko Ana María Aldave Iracheta. Pixkanaka-pixkanaka, emakumeen presentzia handitzen joan zen. 1975ean Madril en egindako jardunaldi sindikaletan, Celia Aberasturi, Paperaren eta Arte Grafikoen sindikatu probintzialaren atal sozialeko presidentea, Arabako langileen ordezkari aritu zen. Bilera horretan, emakume langileek "eskulan merkea izateari eta kategoriaz igotzeko aukerarik ez duen peoi izateari utzi nahi ziotela" aldarrikatu zuten. Soldaten gaia ez zen kezka gai bakarra izan urte horietan, lan baldintzak eta lan osasuna ere aldarrikapen iturri izan ziren.

Langile klasetik feminismora

Kartagileen lan eskakizunek kezka sortu zuten, are gehiago 1976ko lehen hilabeteetan Gasteizen nagusi zen greba giroan. Karta fabrika hainbat atalen lanuztea gertatu zen greban zeuden langileei elkartasuna adierazteko.

Are gehiago, kartagile batzuk diktaduraren aurkako oposizioaren parte bihurtu ziren. Hala, batzuek aktiboki parte hartu zuten 1976ko Martxoaren 3ko mobilizazioetan. Liburuan jasotako bi langileren testigantzek hala diote: "Forjaseko greben ondorioz, gu ere aktibatzen hasi ginen. Batzarren bidez antolatu genuen dena, eta kalera irten behar zela erabaki genuen. Martxoaren 3an egin zen lehen greba Fournierren".

Nortasun berria sortu zen kartagileen artean: feminismoaren eta langile klasearen arteko uztartzea loratu zen. "Hor atzematen da langile borrokaren eta feminismoaren zubia eraikitzen ari zela", dio egileak.

Horrek jarraipena izan zuen Gasteizen antolatzen hasi ziren emakumeen asanbladetan ere. Areitioko emakumeak asanblada horien sorreran ziren eta euren aldarrikapenak bertaratu zituzten. Klasea eta generoa uztartzen hasi ziren eta langileen eskubideen defentsan emakumeen ahotsak entzuten hasi ziren. "Feministen eta orduko lantegietako emakume langileen aldarrikapenak bateratzen hasi ziren. Langile orientazioko feminismoaz hitz egin genezake. Sarritan aipatu da feminismo liberala, feministak emakume burgesak eta klase ertain goreneko emakumezkoak zirela nabarmenduz, baina kontuz! *'feminismoa de base'* deiturikoa ere bazen".

Martxoaren 3az geroztik langileen asanbladak *'jurados de empresa'* deiturikoak ordezkatzeko hasi ziren.

Frankismoaren amaieran emakumezkoak ziren nagusi, beraz, asanbladak egiten zirenean *'emakumeen gaiak'* deitzen zituztenak garrantzia hartzen joan ziren. Euren aldarrikapenean artean zeuden soldaten igoerak portzentajezkoak ez izatea, hala izatekotan, gehien kobratzen zuenak beti gehiago irabaziko zuelako, emakume eta gizonen soldata arrakala are gehiago handituz.

Sindikatu demokratikoak sartu zirenean asanblada bigarren maila batean gelditu zen. Horren aurrean, emakumeek gutun bat bidali zuten zuzendaritzara, fabrika hartzen ziren erabakien erabakien ordezkari legitimo bakarra asanblada zela aldarrikatuz. "Idazkian jada atzematen zen klase eta genero binomioa. Euren burua langile gisa definitzen zuten".

1960ko hamarkadatik aurrera Fournierreko emakumeek fabrikako lana bere garapen pertsonalari lotutako prozesu bat bezala ulertu zuten, jada bere gazarora mugatzen ez zena, eta ezkontzen zirenean amaituko ez zena. "Frankismoak ezarritako *'hombre ganador de pan'* eta *'mujer ama de casa'* iruditeriaren gainbehera hasi zen".

Garaian garaiko estereotipo eta rolak gaunditzen joan ziren apurka-apurka kartagileak. Euren testigantzak biltzen ditu liburuak, isildutako ahotsaren bozgorailu bilakatzeraino. Liburuaren hasierako hitzaurreak dioen bezala, "*Ahora el silencio se rompe; un coro se eleva. Las mujeres hablan*". [A](#)



Servicio de Archivos
de Álava (ATHA-
ALFARO-EMP).



Las olas, en el mar

Ecologistas y surfistas se movilizan contra el proyecto del Ayuntamiento de Donostia de construir una infraestructura de olas artificiales en Antondegi, un monte de enorme riqueza en flora y fauna, a tan solo 4 kilómetros de la costa

NEREA ISPIZUA

El Ayuntamiento de Donostia ha conseguido unir a todos los grupos ecologistas de Gipuzkoa y a diferentes organizaciones sociales y asociaciones en contra de su proyecto de construir una infraestructura de olas artificiales en el corredor verde de Antondegi.

El denominado colectivo *Antondegi Berdea-Olatuak Itsasoan* defiende este espacio natural y la paralización del proyecto de ola artificial, o de cualquier proyecto que amenace a este entorno. Gran parte del colectivo de surfistas de Gipuzkoa no ha dudado en sumarse a esta iniciativa por entender, además, que no hará más que agravar los problemas de

mercantilismo y saturación que actualmente sufre el mundo del surf en Gipuzkoa.

Janire Virgala, Iñigo Fernández Ostolaza y Jabi Iraizoz, tres de esos surfistas que se han sumado activamente a la Plataforma *Antondegi Berdea-Olatuak Itsasoan* no dudan en calificar el proyecto de antiecológico,



elitista y antisocial. “Nos sobran las razones para estar en contra. En primer lugar, de llevarse a cabo, ocuparía una extensión enorme de suelo público natural, monte rico en aves y mamíferos que conforma el corredor verde donostiarra, con las consecuencias evidentes que ello tendría. Y eso se haría, además, cuando a tan solo 25 kilómetros, en Aizarnazabal, hay otra instalación de este tipo, por lo que no está justificada ni una segunda instalación ni el traslado a San Sebastián. Y que este proyecto pretendan llevarlo a cabo en nombre del surf cuando no hay demanda de los surfistas nos indigna y moviliza”, añaden indignados.

A pesar de lo que popularmente se pudiera creer, los surfistas, como colectivo, no son amigos de las piscinas de olas artificiales porque “estas instalaciones permiten mejorar la técnica individual pero

te alejan de la esencia del surf”, explican. Las instalaciones de olas artificiales, normalmente, son visitadas por surfistas profesionales y por influencers. Entre otras razones, porque se trata de un negocio elitista y con un poso de exclusividad, ya que el precio de la entrada es elevado, en torno a 60 euros la hora. “La instalación de Aizarnazabal (recientemente la cantante Shakira estuvo entrenando aquí para el video de su última canción y ha vuelto con su familia este verano) no ha realizado en 7 años ni una jornada de puertas abiertas a pesar

de que siempre dicen que son para todo el mundo”, denuncian. “Este proyecto no tiene ningún apoyo social –insisten–; los y las surfistas de Gipuzkoa tampoco lo queremos, y eso que, según los promotores, somos los usuarios y usuarias potenciales”.

Elitismo

La lectura de clase es otra de las razones que estos surfistas esgrimen para oponerse al proyecto. “No hay que pasar por alto en ningún momento que el



Ekologistak eta surflariak Antondegin olatu artifizialen azpiegitura bat eraikitzeke Donostiako Udalaren proiektuaren aurka mobilizatu dira. Flora eta fauna aldetik aberastasun handia duen mendia da Antondegi, eta kostaldetik 4 kilometrora baino ez dago.

“Udalak Zurriolan ditugun arazo larriak konpontzen saiatu beharko luke, surfaren izenean beste bat gehitu beharrean, naturaren kaltetan”.



De izquierda a derecha: Iñigo Fernández Ostolaza, Janire Virgala y Jabi Iraizoz.

Ayuntamiento está hablando de ceder terreno público natural a una empresa privada con fines lucrativos y elitistas. Porque, si se trata de suelo público, ¿no sería lógico poder acceder a las instalaciones con la Kirol-txartela?”, proponen.

Al final, también entra a debate el modelo de ciudad por el que se está apostando, qué Donostia se está construyendo. Una Donostia para los turistas o para la ciudadanía. “Es evidente que detrás de esta iniciativa también hay intereses turísticos”, explican. “Una instalación de este tipo funciona como efecto llamada, y a su alrededor surgirán más hoteles, más comercios, más, más, más... Más turismo, en definitiva, cuando todos conocemos y sufrimos en nuestro

día a día los inconvenientes de este modelo de ciudad para sus habitantes”, resaltan. Los esfuerzos por impulsar el turismo llevan a las instituciones a cometer muchos disparates.

Saturación

Otro de los motivos de la oposición de Iñigo, Janire y Jabi al proyecto de otra instalación de olas artificiales es, precisamente, su condición de surfistas. “La Zurriola es una playa muy masificada, y esta piscina aumentaría esa masificación porque cuando alguien aprende a coger una ola en una piscina el siguiente paso es ir al mar. Pero se olvidan o desconocen que el surf es mucho más que saber coger una ola: hay que conocer el mar, leer las corrientes y las marejadas, convivir con otros deportistas,

respetándolos, así como a la flora y fauna marina. Si se desconocen estos aspectos del surf la persona puede llegar a poner en peligro su vida e, incluso, la de otros surfistas. En una piscina se puede parar una ola, en el mar, no. La mar tiene siempre la última palabra”, afirman con contundencia.

Oscurantismo, falta de debate público y más

Este proyecto, promovido por el Ayuntamiento de Donostia, estaría pasando inadvertido si no fuera por la campaña de socialización y las movilizaciones que están llevando a cabo los diferentes colectivos que componen la Plataforma *Antondegi Berdea. Olatuak Itsasoan*. Entre sus iniciativas destaca la creación de una página web en la que explican con todo lujo de detalles las nefastas consecuencias que, de llevarse a cabo, tendría este proyecto para el ciudadano y ciudadana de a pie de Donostia y para el medio ambiente. Asimismo, están dando charlas informativas, atendiendo a los medios de comunicación, repartiendo folletos, recogiendo firmas a través de **Change.org**... Han llegado, incluso, a emplazar a los responsables municipales a un debate público sobre el tema, “pero se han negado”, denuncian.

Y es que el oscurantismo rodea esta operación. “Es como poco curioso, además, que cuando el proyecto no ha salido aún a concurso público, no está ni definido ni adjudicado, haya una empresa, Wave Garden, que está respondiendo a nuestro argumentario en su propia página web”, comentan. “No es extraño que haya gente que insinúe que esto huele a pelotazo, a amiguismo, a oscuros intereses, en definitiva”, añaden.

“El Ayuntamiento debería intentar solucionar los graves problemas que tenemos en La Zurriola en vez de añadir uno nuevo en nombre del surf y en detrimento de la naturaleza. Están metiendo la pata por poner en marcha un proyecto sin consultarlo antes con nosotros. Parece que se han creído la llamada postal del surf, promovida por las grandes marcas, que vende un deporte de chicos y chicas guapas, sin problemas, inquietudes ni ideología, cuando la realidad es que hay una enorme diversidad entre los y las surfistas: somos personas de diferentes culturas, razas y género, que convivimos en el mar, y a quienes preocupa la sociedad en la que vivimos y el mundo que nos rodea”, defienden.

A tiempo de pararlo

A pesar de las dificultades, Jabi, Janire e Iñigo se muestran optimistas y creen que la movilización y la presión social va a conseguir paralizar este proyecto, como ya ha ocurrido recientemente en San Juan de Luz. “Esta pelea no ha hecho más que empezar y no nos vamos a rendir”, afirman con rotundidad.

En fechas próximas el Ayuntamiento debe recalificar los terrenos, así que es el momento de ejercer la presión para que el proyecto no salga adelante.

En el Estado francés, movimientos similares han paralizado ya tres piscinas de olas (en Paris, Nantes y Donibane Lohitzun). En el Estado español también ha habido victorias similares en Cataluña y Andalucía. “Nosotros seremos los siguientes”, afirman convencidos, para concluir con un llamamiento al conjunto de la ciudadanía de Donostia, y Gipuzkoa, en general, a sumarse a esta campaña, “Estamos a tiempo de parar este proyecto. Si nos movilizamos, lo conseguiremos”, rubrican. **A**

www.antondegiberdea.eus

**Firma aquí para
detener este
proyecto:**



OLATUAK, ITSASOAN

8 arrazoi ingurumenaren ikuspegitik:

- » Donostiako korridore ekologikoen sarea narriatzea.
- » Landazabal atlantikoko ekosistema egoera onean mantentzen duen Donostiako eremu eskasetako bat degradatzea.
- » Eragin negatiboa 109 hegazti-espezieri, horietako 27 Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan jasota egonik.
- » Antondegiko ugaztunen talde zabalari (18 espezie baino gehiago) kalte egitea.
- » Klima aldaketaren testuinguruan, luraren artifizializazioa eta habitat naturalen azalera murriztea Donostian.
- » Jasangarria ez den eta natura-ingurunea zaintzearekin bateraezina den hirigintza eredua bultzatzea.
- » Energiaren eta uraren kontsumo arduragabea trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren testuinguruan.
- » Egoera onean dagoen landa-eremu baten eraldaketa, hurbileko elikagaiak ekoiztera bideratutako nekazaritza-lurak suntsitzea.

Surflarion 10 arrazoiak:

- » Ez dio surflarien eskaera bati erantzuten.
- » Enpresak badauka antzeko azpiegitura bat Aizarnazabalen.
- » Instalazio horietarako sarrerek prezio altua dute.
- » Surfaren artifizializazioa sustatzen du.
- » Dudazkoa da eliteko surflarien prestakuntzan lagun dezaketeela.
- » Ingurumen-ondorio oso negatiboak izango lituzke.
- » Masifikazioa areagotuko luke gertuko hondartzetan.
- » Aisialdirako eskaintzarekin dei-efektua egiten dute.
- » Itsasoaren aldamenean zentzugabea da erabat.
- » Garaiz gaude proiektu hau gelditzeko! **A**

Nahigabearen olatuak

XABIER HARLUXET

François Verdet, -Biziko militantea, Surfrider Foundation Europe eta Rame pour ta Planète kolektiboaren arduraduna- Donibane Lohizungo surf parkearen kontrako borroka eta garaipena azaltzen du

»Zer da surf parke bat eta zertan zetzan Donibane Lohizungo proiektua?

Ur-aisialdiko zentro bat da, zeinaren eredia ia edonon diren parke tematikoak diren: Jendea jolasekin erakartzen da (kasu honetan, surferako uhinak), eta hau errentagarri izan dadin oroigarriak, jantziak eta jakiak saltzen dira. Zehazki, 155 metroko aldea duen triangelu formako pizsina bat eraiki nahi zuten Donibane Lohizungo proiektuan, eta ondoan 1.500 metro koadroko bulego eta dendak. Honi gehitu behar zitzaion eraikin tekniko bat, makina eta mantentze-lanetarako, sarbide bat, 500 ibilgailurentzako aparkalekua, eta RD 810 errepidetik leku horretaraino doan bidea zabaltzea, urtean 200.000-300.000 bisitari jaso ahal izateko, batik bat maiatza eta urria bitarteko sasoi turistikoan. Proiektu orokorrak 40 milioi euroren inbertsioa eskatuko luke, eta urteroko kudeaketak, 9 milioi. Beraz, Boardridersek inbertitzaile pribatuak behar zen egitasmoa finantzatzeko. Alde teknikoa Gipuzkoako Wavegarden enpresari eman nahi zioten.

»Zergatik da zentzugabea Lohizuneko Surf Park bat eraikitzea?

2020ko udaberrian prentsan ezagutzera eman zenean, proiektuak berehala inguruko biztanleak eta surf komunitatearen erreakzioa piztu zuen. Jolas-parkeak itsasorako bista duen zelai bat suntsituko luke, non astoak eta zaldiak bizi diren, baita ehunka urte dituen baso natural bat ere. Hausnartuz gero, ideia okerreztatu zuten kontua dugu hau. Batetik, lurzorua

artifizializatzen du eskualde honetan, non lursailek espekulazioaren presio bortitza pairatzen duten; metro koadroaren prezioa zenbait puntutan Parisekoa baino handiagoa da (24.000 €/m² Lohizungo etxebizitza batzuetan), eta horrek gurasoen etxetik irten nahi duten hainbat gazte behartzen ditu barnealdera joatera. Bestalde, nekazari eta baratzezainek ez dute aukerarik inguruko beharrak asetzeko, noiz eta kalitatezko ekoizpenak gero eta eskari handiagoa duen.

Uraren kontsumoari dagokionez ere arazoa da; Akitanian zein Frantzia guztian zehar ur-defizita handia da. Proiektu honetarako sustatzaileek eraiki nahi duten





“Organizarnos y desarrollar una mentalidad estratégica, haciéndonos las preguntas adecuadas: ¿quiénes son nuestros adversarios?, ¿quiénes son nuestros posibles aliados y cómo implicarnos? ¿cuáles son nuestras fortalezas y debilidades?... Ésa es la forma de obtener resultados”.

piszinaren edukiera 37.000 m3koa litzateke, egunero iragazi beharrekoak eta gutxienez urtean behin berritu beharrekoak, sare publikora eta bertako ur-araztegira isuriz. Gainera, egunero ehunka m3 ur erantsi beharko lirateke lurrunzen naturalaren ondorioz.

Energiaren kontsumoa ere kaltegarria da: Surf parkeak izugarritzko argindar kantitatea behar du uhinak sortzeko. Horri gehitu behar zaio denda, bulego, hotel eta ur-iragazpen sistemarako behar den argindarra (beste hainbeste). Kirola bera ere desitxuratu egiten da. Bestalde, parkeak milaka lagun gehiago erakarriko lituzke dagoeneko gainezka egin duen eskualde honetara.

»Nola antolatu zen proiektu honen aurkako mobilizazioa, eta zer nolakoa izan da?

Hasieran Herri Berri Lohizungo Herriko Etxean dagoen oposizio taldeak sinadurak biltzen hasi zen. Gero, surf komunitatea ere mugitzen hasi zen *Rame pour ta Planète* kolektiboaren inguruan, zeina ezaguna zen aurreko urtean izan zen Miarritzeko G7aren inguruko ekintza ugarriengatik. Kanpaina honen ardatzak:

1) Ahalik eta mobilizazio zabalena bilatzea, jende asko bildu eta adierazteko inork ez duela egitasmo hau nahi, ez bertako biztanleek, ez surfariak, ez eta elkarte ekologistek ere. 24 argudio bildu ziren, kirol desitxuratutik hasi eta sortzen den enplegua salatuz (sasoikoa); beste kritikak: etxebizitzaren gainera presioa, ur eta energia kontsumoa, sarreraren prezioa, beste surf guneetara ere jende gehiago erakartzea... Bakoitzak gutxienik bizpahiru argudio aurki zezakeen proiektuaren aurka jartzeko. 2) Hedabideetan erraz saltzeko paradoxa nabarmendu: Surfarietazako parke bat eraiki nahi zuten, baina hauek nahiago dute itsasoa. 3) Mandaueilen gisara etengabeko presioa eragin nahi genuen, ekintza bidez (sinadura bilketa, bilera publikoak, pegatak...), edo sare sozialetan mezuak hedatuz, gure borondatea agertu eta proiektuaren sustatzaileek erreakziona zezaten behartuz.

»Nola eta zeren bidez lortu duzue proiektua geldiaraztea?

Garaipenak hainbat oinarri ditu. Batetik, kanpainaren antolakuntza. Neu Bizi! justizia sozial eta klimatikoaren aldeko mugimenduko kide naiz; hark, Alternatiba eta ANV Cop21ekin batera, antolakunde estrategikorako teknika eraginkorrak garatu ditu. Gure metodoak talde-dinamika eta ekintza ez bortitza bateratzen ditu. Posizio eta helburuetan erradikalak (proiektua gauzatzea galaraztea da asmoa), baina baita pragmatikoak ere, hots, geure mugen eta azken bururaino iristeko egin beharreko bidearen jakitun gara.

Bigarrenik, nire ustez funtsezkoa da borroka oso goiz hasi izana.

Hirugarrenik, ahalegin guztia egin dugu iritziz publikoaren aurrean agertzeko zentzuzko pertsona eta jende jantzi gisa, datu zientifiko sendoak ez ezik maite dugun lurralde baten aldeko analisi koherenteak eskainiz. Honek sinesgarri egin gaitu tokiko prentsari, gero Frantzia mailan.

Azkenik, nire ustez egoera sanitarioak Boardriders enpresa eraman du bere lehentasunak berrikustera eta proiektu polemikoa baztertzerako, errentagarritasuna ez baitzen segurua.

»Zer gomendatuko zenieke halako proiektu alferreko eta inposatuaren aurka mobilizatu nahi dutenei?

Antolatzea, pentsamolde estrategikoa garatzea, galdera egokiak eginez: nortzuk dira gure arerioak, nola estutu? Nortzuk dira gure balizko aliatuak eta nola inplikatu? Zeintzuk dira gure indarguneak ('motibatuta gaude!'), eta ahuleziak (esaterako, 'ez gara asko...')? Hori da emaitzak lortzeko modua. Eta garaile izan diren borrokak aintzat hartzea; zalantzarik gabe, errepika daitezkeen ideia onak topatuko ditugu... 

Tras el titanio, precariedad con rostro de mujer



Bilboko Guggenheim Museoko garbiketzaileak greban daude ekainaren 11tik, prekarietatearen eta soldata arrakalaren aurka. Lau hilabeteko borrokaren ondoren, museoko gauzarik baliotsuena artelanak ez direla frogatu dute, ezta Puppy edo Mamma ere, pertsona horiek direla baizik: titanioaren atzean ezkutatzen direnak, gehienak emakumeak.



Aldizkari hau papera
eta prozedura
jasangarriekin egin
da / Esta revista se
elabora con papel
y procedimientos
sostenibles

Franqueo itundua / Franqueo concertado

nº 08/129 Zk